


Okondoko
herriaren aldizkaria
#22
2021eko MARTXOA / MARZO

# Okondo se suma al Día de las Mujeres

Una vez más, el Ayuntamiento de Okondo, ha organizado una serie de actividades dentro de la campaña del 8 de Marzo, día para reivindicar los derechos de las mujeres. Para facilitar el empoderamiento de las mujeres, la psicóloga Belén Andrés ofrecerá dos talleres: uno de iniciación, titulado "Equilibrio y bienestar integral", el 16 de marzo; y otro de continuación, bajo el título "Crecimiento y poder personal", el 11 del mes. Ambos se impartirán en la Casa de Cultura, de 18:00 a 20:00. El aforo será limitado y se tomarán todas las medidas sanitarias. Tendrán prioridad las personas empadronadas en Okondo y se ofrecerá Servicio de Guardería, el cual se debe solicitar con antelación. Por otra parte, el domingo 7 de marzo actuará en la Casa de Cultura la artista Pantxika Lamur, que ofrecerá un espectáculo sobre los derechos de las mujeres en clave de humor y reflexionando sobre la situación de desigualdad. Será a las 18:00 y se tomarán las medidas sanitarias precisas. Para terminar, el 8 de marzo se organizará y coordinará con la Eskola y el movimiento feminista de Aiaraldea. La concentración será a las 18:00 frente a la Eskola. De cara a este evento, el Consistorio lanza un reto para crear una lista de canciones feministas, invitando a compartirlas. Para más información o inscribirse en alguna actividad, se puede llamar o enviar un WhatsApp al 686 58 78 89 o un correo electrónico a la dirección cayala.miren@ayto.araba.eus.

*Berdintasun Arloak hainbat ekintza antolatu ditu Emakumeen Egunean, martxoaren 8an, horien eskubideak aldarrikatzeko: besteak beste, ongizateari buruzko bi tailer, Pantxika Lamurren ikuskizuna eta abesti feministen erronka*

# Aiarako Bira herritik igaroko da

Pandemia dela eta bertan behera geratzen ez bada, martxoaren 14an pasako da Aiarako Bira Okondotik. Lasterketa udaletxetik abiatuko da, 11:00etan. Bertatik, herritik atera eta Zuhatzako elizara joko dute txirrindulariek. Jarraian, Arespalditzarako bidea hartu, Murgako Zabalbetxiko bidegurutzetik igaro eta Arespalditzako ferialera helduko dira. Hortik Zuhatzako elizara bueltatu eta Okondorako noranzkoa hartuko dute, Iruleta auzoa zeharkatuz. Bukatzeko, behin udalerrira itzulita, Irabien auzoan egongo den helmugara joan beharko dira parte-hartzaileak. Arespalditzan eta Esquinabajon mendiko sariak kokatuko dira, 3. mailakoak biak. Bestalde, Zuhatzako elizan tarteko helmuga egongo da. Laserketa baino lehen, 10:15etik 11:45ak arte, parte hartuko duten taldeak aurkeztuko dira udal frontoian.

*La competición ciclista Aiarako Bira recorrerá Okondo el 14 de marzo, de 11:00 a 12:00, si las normas sanitarias del momento lo permiten*

**ALBISTEAK** NOTICIAS

# Diagnóstico del desperdicio alimentario en los hogares



Con la colaboración de la ONGD Enraíza Derechos, Okondo da comienzo al diagnóstico del desperdicio de alimentos, junto con el resto de municipios de la comarca. Se trabajará conjuntamente en mesas de trabajo intersectoriales, donde se debatirá sobre los motivos del desperdicio alimentario y se buscarán estrategias comunes para evitarlo. Además, dentro de este diagnóstico, se llevarán a cabo acciones y propuestas de sensibilización que, manteniéndose en el tiempo, puedan generar una reflexión y un cambio de hábitos en las personas. La metodología que se aplicará de cara a la cuantificación de este desperdicio será la recomendada por la Unión Europea, para favorecer así la comparabilidad de los resultados con otros estudios. La disminución del excedente alimentario ayuda a frenar las emisiones de $CO_2$ y la huella hídrica.

**¿Quieres participar?**

La Cuadrilla de Ayala invita a 25 familias a participar en esta experiencia piloto pionera en Euskadi. En caso de querer ser protagonista del proyecto y contribuir de forma activa, es necesario escribir un correo electrónico antes del 14 de marzo a cayala.encina@ayto.araba.eus. Las familias que finalmente formen parte de esta experiencia recibirán como obsequio una cesta de productos de la comarca.

*Elikagaien xahuketaren inguruko diagnostikoari ekingo dio Okondok, eskualdeko gainerako udalerriekin batera. Aiarako Kuadrillako 25 familiak parte hartu ahalko dute, eta bertoko produktuen saskia jasoko dute opari moduan*

## HABEren udaberriko azterketetarako izen-emateak hasiko dira

HADE

AZTERKETA-DEIALDIAK

B1 B2 C1 C2

Euskara-mailak egiaztatzeko, bi azterketa deialdi eskaintzen ditu urtero HABEk, bata udaberrian eta bestea udazkenean. Euskaltegian ikasiz gero, bertan lortutako mailak zehaztuko du egin beharreko proba. Bestalde, deialdi irekia ere badago eta bertara aurkezteko gutxienez 17 urte izatea edo 2021ean betetzea beharrezkoa da. Deialdi horietan, lehen azterketaldirako izen-emateak apirilaren 6tik 14ra luzatuko dira; udazkenekoak, irailaren 9tik 15era. HOBE deialdia ere eskaintzen du HABEk, ordenagailu bidezkoa, maila hauetan: C1 eta C2 udaberrian eta B1, B2, C1 eta C2 udazkenean. Lehen azterketaldian, martxoaren 9tik 16ra eman daiteke izena, eta bigarrenean, irailaren 1etik 8ra.

*Del 6 al 14 de abril se podrá realizar la matrícula de la primera convocatoria de los exámenes de HABE, para los niveles B1, B2, C1 y C2*

ko mu ni ka
KOMUNIKAZIO INTEGRALA

di sei nua
ko mu nika zioa
pu bli zita tea
itzul pen gin tza
ba na ke ta

Nerbioi kalea, 12 LAUDIO info@komunika.eus www.komunika.eus 94 656 85 54

## La DGT asumirá en Okondo la competencia sancionadora

Por medio de la Resolución de 22/01/2021 de la Directora de Tráfico del Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco, la Dirección de Tráfico asumirá con carácter temporal y desde la fecha de la resolución la competencia sancionadora por las infracciones cometidas en las vías urbanas del Ayuntamiento de Okondo, en materia de tráfico, circulación de vehículos a motor y seguridad vial, conforme a lo previsto en el cuadro de multas de la Dirección de Tráfico del Gobierno Vasco, en aplicación del Real Decreto Legislativo 6/2015 del 30 de octubre y normativa complementaria.

## Iazko 4. hiruhilekoko ura, zabor bilketa eta estolderiaren tasa

Udalak gogorarazi nahi du ordainagiria helbideratuta ez duten herritarrek martxoaren 15a baino lehen ordaindu beharko dutela 2020ko 4. hiruhilekoko uraren, zaborraren eta estolderiaren tasa.

*El pago de la tasa de agua, basura y alcantarillado del 4º trimestre de 2020 finaliza el 15 de marzo en el caso de no tener el recibo domiciliado*

## Programa sociocultural Aulas de Tercera Edad, para mayores de 55




En colaboración con la Diputación Foral de Álava, el Ayuntamiento de Okondo acogerá próximamente el programa sociocultural *Aulas de la Tercera Edad*, dirigido a vecinas y vecinos mayores de 55 años. Dentro de esta iniciativa, se ofrecerán en la localidad diversos cursos, conferencias, talleres, recitales, obras de teatro, sesiones de cine, visitas guiadas y excursiones, entre otras actividades. El objetivo es favorecer la calidad de vida de las y los habitantes mientras envejecen, mediante el impulso de un envejecimiento activo. La programación concreta del municipio será anunciada en las próximas revistas municipales, así como en la página web del Ayuntamiento y a través de cartelería.

*'+ 55 elkartegiak' izeneko programa soziokulturala eskainiko da Okondon, 55 urtetik gorakoen zahartze aktiboa bermatzeko*

## Aniztasunetik jolastu, Berbalagun egitasmoaren barnean!

'Aniztasunetik jolastu' izeneko tailerra antolatuko du AEK-k Okondon, martxoaren 12an. Kultur-etxean izango da 17:30ean. Hiru jolas-saiotan antolatuko da ekintza, euskaraz sozializatzeko eta aniztasunari buruz sentsibilizatzeko xedez: norberaren izena braillez idazten ikastea, oztopo-lasterketa begiak itxita, etab.

*El programa Berbalagun, acogerá el 12 de marzo varios juegos sobre la diversidad*

## Euskaraz paseatzeko taldea sortu da herrian

Zenbait okondoarrek Paseolagun ekimenarekin bat egin dute. Egungo osasun neurriak jarraiki, gehienez lau pertsonako taldeetan biltzen dira.



*Varias vecinas y vecinos de Okondo participan en la actividad Paseolagun para practicar el euskera*

YANDIOLA
HORTZ KLINIKA LAUDIO

1945. urtetik Laudion zurekin


PADI PROGRAMA


INPLANTEAK


3D ERRADIOGRAFIAK

Karmen Kalea 13, behea LAUDIO (Araba) 946 72 31 00
Modiku zen rua RPS: 314/18

¿Tu negocio no aparece en ARKIDE?

Si no apareces, no existes.

Eskaini zure zerbitzuak Okondoko etxe guztietan

Ofrece tus servicios en todas las casas de Okondo

Informa zaitez
Infórmate sin compromiso

publizitatea@komunika.eus
688 625 394

# Tabletak kontsultatzeko eta etxean erabiltzeko aukera



Tabletak baliatzeko zerbitzu berria abiatuko du Okondoko Udal Liburutegiak. Helburua da mugikor gailuen bidezko irakurketa errazten laguntzea eta, era berean, liburutegian eskuragarri dauden baliabide teknologikoak sustatzea. Liburutegiko txartela duten adin nagusiko herritarrek erabili ahalko dute zerbitzua, betiere txartel hori blokeatuta ez badago Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea osatzen duten liburutegien mailegu-araudiak ez betetzeagatik. Pertsona bakoitzari tablet bakarra utziko zaio eta, kontsulta zerbitzuaren kasuan, liburutegian bertan erabili beharko du, hau da, ezin izango da kanpora atera. Mailegu zerbitzu honek liburutegiaren ordutegi bera izango du, baina liburutegia itxi baino ordu erdi lehenago itzuli beharko dira gailuak. Tableta piztuta itzuli behar da eta osagarri guztiak egoera onean egon behar dira. Gailua galdu edo hondatuz gero, antzeko ezaugarriak dituen beste bat erosi edo horren balioa ordaindu beharko dute erabiltzaileek. Bestalde, etxez etxeko mailegu zerbitzua ere eskainiko da. Kasu honetan, 40 euroko bermea utzi beharko dute eskatzaileek. Mailegua 15 egunekoa izango da, eta gehienez beste 15 egunez luzatu ahalko dute.

*La Biblioteca Municipal pone en marcha los servicios de consulta y préstamo de tabletas. Las consultas se podrán realizar diariamente en la propia biblioteca, mientras que el préstamo a domicilio será de 15 días prorrogables a otros 15. En el caso del préstamo, será necesario depositar una fianza de 40 euros.*

# AGENDA

## MARTXOA

### 7
**ANTZERKI UMORETSUA**

Pantxika Lamur artistaren eskutik.

*18:00* **Kultura Etxea**

### 8
**EMAKUMEEN EGUNA**

Kontzentrazioa, segurtasun neurriekin.

*18:00* **Eskola aurrean**

### 11
**TAILERRA**

"Crecimiento y poder personal", Belén Andresen eskutik. Haurtzaindegi zerbitzua aldez aurretik eskatu daiteke.

*18:00-20:00* **Kultura Etxea**

### 12
**ANIZTASUNETIK JOLASTU**

Juegos relacionados con la diversidad dentro del programa Berbalagun.

*17:30* **Kultura Etxea**

### 14
**AIARAKO BIRA**

La 2° etapa de la competición ciclista.

*11:00* **Ayuntamiento**

**ELIKAGAIEN XAHUKETA**

Proiektuan izena emateko azken eguna.

### 16
**TAILERRA**

"Equilibrio y bienestar integral", Belén Andresen eskutik. Haurtzaindegi zerbitzua aldez aurretik eskatu daiteke.

*18:00-20:00* **Kultura Etxea**


